

Fiskaltza Euskal Herrian

Aurrera darraigu Zuzenbidearen esparrua osatzen dutenen lanbideei eskainitako tartearekin. Aurreko aleetan abokatutza eta epailetza aztertu ostean, oraingo honetan fiskalen egitekoari hurbildu gaitzaizkio, lanbide honi buruz jakin beharrekoak ezagutzeko.



Alfonso Aya Onsalo, Gasteizko fiskal nagusia

"Fiskalak ahulenen interesak defendatzen ditu"

Gasteizko fiskal nagusia da **Alfonso Aya**, 1984az geroztik. Bilbotar honek Deustuko Unibertsitatean egin zituen Zuzenbide ikasketak, eta ordudanik abokatu fiskala eta Justizia sailburuordea ere izan da. Era berean, Unión Progresista de Fiscales-eko kide izateaz gain, Arabako Abokatuen Elkargoko Praktika Juridikoko Eskolako eta Kriminologiako Euskal Erakundeko irakaslea ere bada.

1.

Azalduko al zeniguke hitz bitan zein den fiskalak Justizia Administrazioaren baitan daukan egitekoa?

Galderarik zailena egin didazu. Ez da batere erraza erantzun bat ematea, baina esango nuke gizartea auzitegien aurrean ordezkatzeari dela. Fiskala niretzat ez da Legearen aplikatzailea, baizik eta gizartearen interesak defendatzen

dituena, ahulenen interesak gainera, dela ezin dutelako babes hori beren kabuz eskatu, dela ezin dutelako beren burua ordezkatu.

2.

Zergatik da beharrezkoa fiskala?

Bilakaera historikoa alde batera utzita, fiskala Estatuaren ordezkaria zen, fiskoarena, Estatu



Ogasunarena; horregatik daukagu oraindik erakunderen baten ordezkaria denaren nolabaiteko irudia. Gainera, Konstituzioaz geroztik, eta baita lehenagotik ere, defentsarik ez daukatenak defendatzera zuzendu da.

3.

Zein prozedura jarraitu behar da fiskal izatera iristeko?

Zuzenbidean lizentziaduna izan eta oposizio batzuk gainditu behar dira. Gogor samarrak dira oposizioak; buru ona behar da zoritxarrez, teknika memoristiko gehiegi. Baina, hala ere, ez lukete burutsuek bakarrik aurkeztu beharko, gizartearen interesatuta dagoen jendea behar baitugu.

4.

Egokia al da prozedura hori, ala aldatu egin beharko litzateke?

Aldatu egin beharko litzatekeela dirudi, bereziki lanbidean sartzen dena defendatu beharko dituen interes orokorrekina bat datorrela ziurtatzeko; hau da, gai mordo bat ikasteko etxean sartuta dagoena baino hurbilago egongo dela gizartearengandik. Hortaz, asko ikastea aholkatuko nuke, Zuzenbide asko jakitea, baina, aldi berean, gizartearen arazoekin harremanetan egotea.

5.

Konstituzio espainiarreko 124. artikulua, Ministerio Fiskalaren funtzioak zerrendatzerakoan, Justiziaren izenean akzioak tarteratzekoarekin batera, beste bi ere aipatzen ditu: Auzitegien independentzia zaintzea eta interes soziala betetzen dela ziurtatzea. Nola betetzen ditu azken bi hauek?

Egia esan, auzitegien independentzia ez da modu teoriko batean zaintzen prozedura zehatz bat jarraitzeagatik; aitzitik, fiskal bakoitzak auzitegiei irtenbiderik zuzenena eskatzen egiten duen eguneroko lana dela esango nuke.

Ministerio Fiskalaren kasuan, adibidez, Zuzenbide penalean zigorrak eskatzeko daukan egitekoaz hitz egiten da beti, baina kontua ez da zigorrak eskatzea, eta ezta ere harik eta astunena lortzea, zuzenena baizik. Horrela egingo dugu Justizia, bai gizartearen aurrean, bai auzitegien aurrean, independentziari eusten laguntzen diegulako.

6.

Konstituzioko artikulua horrek berak dioenez, Ministerio Fiskalak batasun eta menpekotasun jerarkikoaren printzipioei jarraitu behar die.

Apur bat kontraesankorra dirudi. Auzitegien independentzia zaintzea baldin badagokigu, organo independentea izan beharko dugu, independentea ez denak ezin baitu independentzia gorde. Baina, beste alde batetik, menpekotasun jerarkikoa agintzen du.

Nire ustez, barrualdean bakarrik dago menpekotasun jerarkiko hau; alegia, jarduera unitario bat lortzearen nagoela nire gainean daukadanari menpekotuta. Kanpora begira, ostera, ez dago menpekotasunik. Ministerio Fiskalak, organo gisa, independentea izan behar du beste edozein botererekiko, dela legegilea –nahiz eta bete egin behar dituen honek emandako legeak–, dela exekutiboa, dela egitatezko boterea. Beraz, menpekotasuna barrura eta antolakuntzari begira dago, baina, kanpora, independentea da.

7.

Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoak autonomia funtzionalari egiten dio aipu, baina Estatuko fiskal orokorra Gobernuak egindako proposamenari jarraituz izendatzen da. Nola uztartu bi alderdi horiek?

Uztar ote daitezkeen edo ez, ez dakit, baina zaila da ulertzeko. Hauxe da hain zuzen ere lehen aipatu dudana kanporako independentziaren alderdirik ilunena: antolaketa jerarkiko horretako burua Gobernuak izendatzea. Horregatik, fiskal askok Estatuko fiskal orokorra Kongresuak izenda dezala proposatzen dugu, horrela independenteagoa izango litzatekeelako.

Uneotan dagoen arazorik handiena da Estatuko fiskal orokorrak ez duela inoren agindurik behar, jakin badakielako ez baldin badu Gobernuak daukan irizpideen arabera jarduten, edozein unetan kenduko dutela bere lekutik. Eskaera zehatzik egin beharrik ere ez dago.

8.

Sari esan ohi da Ministerio Fiskala, Konstituzioan VI. tituluan jasota egon arren (Botere Judizialari buruzkoa), ez dela Botere Judizialaren baitakoa.

Gainerako botererekiko autonomia handiagoa aldarrikatu nahi du. Ezin da zehatz-mehatz Botere

Judiziala denik esan, ez baitauka erabakitzeko ahalmenik, baina ezin da gainerako botereen artean ere sartu. Ez da Botere Judiziala, baina Botere Judizialaren baitan dago. Gure independentzia, beste edozein boteretik baino Judizialek gertuago egoteak bermatzen du, besteak beste.

9.

Zer egin daiteke fiskalen aldetik prozesu penalean instrukzio fasea arindu eta ahazkotasuna bultzatzeko?

Nik uste dut bide horretatik jo beharko luketela etorkizuneko aldaketek, Auzitegiaren aurrean proba zehatzak aurkeztu behar dituen fiskala delako; beraz, nahikoa da beharrezko proba zehatzak aurkeztearekin; ez du zertan hirugarren pertsona batek proba horiek jasotzen aritu behar. Fiskala bera da gauzak lehenbailehen egiteko eta, behin behar adina proba eskuratutakoan, auzia amaitzeko interesik handiena izango duena. Gainera, askoz ere denbora gutxiago galduko litzateke, horrelako tarte hilak baitira Justizia penalean atzerapenak sortzen dituztenak.

10.

Nola baloratuko zenuke Justiziaren egungo egoera orokorra?

Orain bertan inflexio une batean dagoela dirudi, une zail batean. Orain dela zenbait urte ukiezina zen Justiziak eta epaileek ziotena, baina duela urte batzuetatik aurrera alderantzizkoa gertatzen ari da. Eta ez da harritzekoa: bi pertsonak epaileari gauza ezberdinak eskatzen baldin badizkiote, erdiari behintzat ez zaio gustatuko epailearen ebazpena, eta epaileak ez baldin badu eskatu zaion guztia ebazten, agian inori ez. Era berean, zailtasunak sortzen dituzte Justizia Administrazioaren berandutzak, bete gabeko postuek, eta abar. Egunotan bertan Estatuko Itun berri bati buruz hitz egiten da, akordio batera heldu eta Justiziaren Administrazioari bultzada berri bat emateko beharraz. Errotik hasita, maila guztietan berritu behar da Justizia Administrazioa.

11.

Eta zer diozu Fiskaltzari buruz?

Fiskaltzari buruz, beste hainbeste esango nuke ziur aski. Eta, gainera, beste erronka bat daukagu aurrera begira: delituengatik prozesu guztien instrukzioa geureganatzea, gaur egun epaileen esku dagoena. Gure asmoa litzateke epaileek epaitu besterik ez egitea, auzien instrukzioa Fiskaltzaren esku utziz. Baina aipatutako arazoa

dago hor, benetan independentea den Fiskaltza batek bakarrik egin baitezake hori.

12.

Nahikoa baloratzen al du gizarteak fiskala?

Baloratzen ote duen edo ez baino gehiago, esango nuke gizarteak ez duela fiskala ezagutzen, ez dakiela oso ongi zer den: Estatuaren abokatua, jendea presondegiatan sartzen eta ateratzen ibiltzen dena, edo zer. Jendeak Estatuaren ordezkaria dela uste du, eta, probak eduki edo ez, ongi ala gaizki iruditu, edozein kasuren aurrean zigor bat eskatu behar duena. Egia esan, nahiko itxiak gara jendeari gauza horiek ulertarazteko orduan, baina ikustarazi behar dugu fiskala gizartearen ordezkaria dela eta interes sozial hori bete behar duela.

13.

Egokiak al dira EAEko Fiskaltzak dauzkan baliabide pertsonal eta materialak?

Baliabide pertsonal gehiago, fiskal gehiago beharko ditu ziurrenik. Askotan, egiten dugun lana baino gehiago egin genezake. Nahiko jende gutxi daukagu, adibidez, etxeko bortxakeriaren inguruko delituen kasuan, emakume eta haurren aurkako delituetan. Baliabide materialei dagokienez, EAEk eginahal handia egin du eguneratzeko, eta ongi dago oro har, beste leku batzuetan baino askoz ere hobeto.

14.

Zer eskatuko zenuke fiskalen izenean?

Prozesu penala besterik gabe gure alderdietako bat izatea nahiko genuke; denbora gehien kentzen diguna izango da beharbada, baina ez du zertan garrantzitsuena izan behar. Badira gehiago azpimarratu beharko genituzkeen beste alderdi batzuk ere: etorkinen babes, langileen babes laneo delituen aurrean, haurrena, tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeena, eta abar. Alor horiek eguneratu eta horietan ere jardutea eskatu beharko genuke; agian baita gerorrek geure buruari ere.

15.

Gizartean ez da oraindik Zinpekoen Epaimahaiaren inguruko eztabaida itzali. Zein da zure iritzia?

Niri orokorrean positiboa iruditzen zait Zinpekoen Epaimahaia, gizartea Justiziaren Administrazioa hurbiltzen duelako. Kontua da arazo asko daudela

tartean. Epaimahaiaren epaiketak profesionalen bidez egindakoak baino askoz ere garestiagoak dira, baina ez ekonomikoki bakarrik, baizik eta baita ere denboragatik, jendea Epaimahaira joateko molestatu behar duzulako eta abar. Halere, gizartea nolabait Justizian sartzen dela dirudi, Justizia ez baikara gu bakarrik.

Beste gauza bat da Epaimahaiak orain bertan aztertzen dituen epaiketak ez direla agian egokienak. Beharbada, etxearen bortxaketa edo funtzionario eroskeriagatiko epaiketen modukoak sinpleegiak dira Epaimahaiaren izapidetza konplexuetan sartzeko, baina, nolahi ere, nire ustez edozein hiritar da erailketa edo sexu askatasunaren aurkako delituak epaitzeko gai –azken hau oraingoz ez da Epaimahaiaren supostu bat, baina agian sartu egingo da–.

Nire iritzian, gainera, kaltetua gizartea bera den delituetan ere hartu beharko luke parte Epaimahaiak, hala nola delitu ekologikoetan edo delitugilea funtzionario publikoa den kasuetan, bestela funtzionario publikoak elkarri epaitzen ari garela baitirudi. Gizarteak berak epai dezala.

16.

Nola dakusazu euskararen egoera EAEko Fiskaltzari dagokionez?

Euskararen egoera zaila dela eta normalizatzen luze joko duela esaten ari gara, baina onartu behar dugu hau guztia esan izan genezakeela duela hogeitun urte, eta askoz ere aurreratua egongo ginakeela. Konstituzioa eta Estatuak geroztik urte asko galdu ditugula dirudi. Nire ustez egoera benetan atzeratua dago, benetan gaizki. Ziur aski karrera judizial edo fiskalean sartzen ari diren gazteekin egin beharko da lana. Horrez gain, barnetegiena iruditzen zait aurrera egiteko modu bakarra, nahiz eta zenbait lanpostutan oso zaila den bulegoa hamabost egun edo hiru hilabetez utzi eta barnetegi batera joatea.

17.

Ezer proposatuko al zenuke zure aldetik?

Barnetegiaren kontua oinarritzat iruditzen zait ikastaro aurreratuetan dabilzanentzat. Gainera, bitarte horretan ordezkaritzak egingo dituen jendea behar dugu. Eta, oro har, euskaraz aritu behar da eskola eta unibertsitateetan; ez naiz ereduetan sartuko, baina lana egin behar da. Eta helduok konturatu beharko genuke haurrek euskara ikastea ez dela ikasgai soil bat, baizik eta herri baten arima mantentzea dela.

Elkarrizketatzailea eta itzultzailea: Koro Garmendia